

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2025/05/22an EGINDAKO EZOHICO
OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
22/05/2025.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2025eko maiatzaren 22a, arratsaldeko 17:30ean, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ezohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 22 de mayo de 2025, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAEZ4H.f2uN>

2025/05/22
Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria

1.- AGENDA 2030- “LEHORREKO EKOSISTEMAK”. IKASTETXEEN PROPOSAMENA.

Alkateak ongietorria eman die projektuan parte hartu eta Osoko Bilkurara agertu diren Luis Ezeiza Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako ikasleei.

Jarraian, Agenda 2030 programaren harira prestatutako "LEHORREKO EKOSISTEMEI" buruzko proiektio bat erakutsi dute ikasleek, eta zenbait proposamen egin, akta honen eranskinean labur jasota daudenak.

Proposamenak egin ondoren, udalbatzarkide guztiek ikasleak zoriondu dituzte egindako lanagatik, eta Mikel Luengo zinegotziak, udaleko ingurumen arloko arduradunak, bide beretik lan egiten jarraitzera animatu ditu, eta adierazi die egindako proposamen guztiak bat datozela Udalaren ingurumen politikarekin.

Eta beste gairik ez dagoenez, 17:50ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- AGENDA 2030- “ VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES”. PROPUESTA DE LOS CENTROS ESCOLARES.

El Alcalde da la bienvenida a los alumnos de Luis Ezeiza Herri Eskola y de Arizmendi Ikastola que, habiendo participado en el proyecto, se han personado en el Pleno.

A continuación, muestran una proyección sobre la “VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES”, preparada con motivo del Programa Agenda 2030, y hacen una serie de propuestas que, a modo de resumen, constan en el Anexo a la presente acta.

Hechas las propuestas, todos los miembros de la corporación felicitan el trabajo realizado y el concejal Mikel Luengo, responsable del área municipal de medio ambiente, les anima a seguir trabajando en la misma línea, señalándoles que todas las propuestas que han hecho coinciden con la política medio ambiental del Ayuntamiento.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17: 50 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

ERANSKINA-ANEXO
2024-2025 ikasturtea

Aurten Eskolako Agenda 2030ean Luis Ezeiza eta Arizmendi ikastolako ikasleek landu duten **Gaia 15. GIH izan da: LEHORREKO EKOSISTEMAK** eta hainbat ekintza burutu dituzte gai honen inguruan.

Gogora arazi nahi dizuegu Eskolako Agenda 2030 prozesua orain 2 ikasturteetan lantzen dela. Hau da, erabakitako GIHa bi ikasturteetan lantzen dela eduki hauekin:

- 1. Ikasturtean: Diagnostiko-fasea eta eskuhartze planaren diseinua egiten da.
- 2. Ikasturtean: Esku-hartzea martxan ipintzen da.

Lehen ikasturtean gaudenez, aurten Diagnostiko fasea landu dute ikasleek eta eskuhartzearen diseinua egingo dute ere.

Diagnostikoa lantzeko jardunaldi tekniko bat jaso dute LH eta DBHko ikasleek eta herri diagnostikoa geletan eta kalean lantzeko aukera izan dute material ezberdinak izan dituztelarik horretarako: irakaslearentzako materiala eta ikasleek gelan eta kanpoan lan egiteko fitxak, LH eta DBHko ikasleei zuzenduak.

Ikasturte hasieratik maiatza bitarte arte egindako lanari **Maiatzaren 21ean** ospatuko duten eskolarteko Foroarekin Eskuhartze Planaren diseinua egingo dute eta hori izango da hurrengo egunean Udalari, Plenoan aurkeztuko diotena.

Hauek dira datorren ikasturtera begira ikasleentzako lehentasunezkoak diren gaiak:

1. **Intsektuentzako hotelak ipini (Urkulun eta ikastetxeetako ortuetan**
2. **Bertakoak diren zuhaitzak landatu erreka inguruetan: haritza, hagina, pagoa, e.a.**
3. **Erreka garbitzeko egunean parte hartu.**
4. **Belardiak ez moztu.**
5. **Kartelak ipini herritarrei bioaniztasuna eta espezien inguruan informatzeko.**

Aipatutako 5 gaiak direla eta, 2 alorren inguruan egingo dute eztabaida ikasleek:

1. **Ikasleek beraien kabuz garatu ditzaketen ekintzen inguruan pentsatuko dute eta hauek hurrengo ikasturtean martxan nola ipini zehazten ahaleginduko dira.**
2. **Ekintzak aurrera eramateko udalaren laguntza beharko dituzten kasuak identifikatuko dituzte.**